

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko otsailak 8 • 92.zka. •

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDAMARI, 7- 2. EK.
ARETXABALETA



Aratusteak gainean

Santa Ageda mutilak


Mushing eta musherra

Industrialdea, enpreses josia



Gaur bizitza zuk gidatzen duzu.


Mégane eta Mégane Cupé berriak, plazerra eta segurtasuna batzen dituzten modeloak.



MECAk otsailaren 14ean aurkeztuko du arratsaldeko 7etatik aurrera.
Zatoz RENAULTen azkenaz gozatzera!




MECA



Zer duzu esateko Aretxabaletako industrialdearen inguruan?

*Jose Ramon Gurrutxaga
(Langilea)*

Egia esan informazio gehiegirik ez dut industrialdearen inguruan baina horrelako inizatibak ondo ikusten ditut gaur egun dagoen langabezia ikusita.



*Rosa Mari Alonso
(Etxekoandrea)*

Nik uste dut enpresa barriak sortu dituela baina ez dakit zenbat lanpostu sortuko zituen, horren inguruan ez dut informaziorik.



*Mari Karmen Intxauspe
(Etxekoandrea)*

Industrialdearen inguruan ez daukat informazio gehiegirik baina lanpostuak sortzeko bide bat izan dela uste dut.



*Justo Muñoz
(Langilea)*

Nik uste dut lanpostu dexente sortu dituela, jendea aldi-baterako kontratatzen dute eta. Nire eritziz Aretxabaletan industria egoera onean dago.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



ESKUTITZAK

ZERGATIK **elkarriren KONTRA?**

16 urte nituenetik politikan sartuta egon naiz. Orditik hona nire ideologiaren oinarriak berdinak izan dira: Euskal Herriaren askatasuna nahi dut; ideial batzuegatik burrukatu duten eta orain kartzelan, extraditatuak eta exiliatuak dauden guztiak nire ondoan ikusi nahi ditut; gure herriak libertate osoz aukeratu dezan nahi dut, Madrilgo agindurik gabe; eta pakean bizitzea gustatuko litzaidake. Hau HBn nengoela defenditu dut eta nire ustetan, orain Elkarrik hori bera defenditzen du. Egia da, biolentzia orain arte autodefensa moduan garatu izan dela eta inork inoiz ez du ezer esan. Nik guzti hau gerrate bat bezala ulertzen dut, eta "frentean" daudenek dena jokatzeko dute bertan. Horrenbeste urtetan burrukatu ondoren, eta lortu diren emaitza eskaxak ikusita, Madrilgo agindupean jarraitzen dugu, eta gurek zapalduak izaten jarraitzen dute Espainiako kartzeletan, zergatik ez dugu guzti hau elkarriketaren bidez konpontzen, biolentzia alde batera utzita?. Elkarrik ez du asmo politikorik, gatazkan dauden bi aldeak, Espainiar estatua eta ETA mahai berean eserierazi nahi ditu, bakoitzak "berrea" erakutsi dezan. Horrenbeste kostatuko al litzateke hau?

Inork ez du begi onez ikusten herritar soilak hiltzea, nahiz HB, EA edo EAJko ideologia izan. Lehen borroka muga batzuk zituen; mugak apurtu egin al dira? denak balio al du? Elkarrik hau bakarrik galdetu du, eta jende asko ere galdezka ari da; ni ere bai. Nahikoa arrazoi al da hau, kritikara eta irainera heltzeko?.

"Barrutik"en komunikatuko komentarioa eta EAJ eta PSOeren kritikak ez zaizkit Elkarriren lanarekin zuzenak direnik iruditzen.

Denok askatasuna eskatzen dugu eta nik ez ditut bateraezinak ikusten Euskal Herria askatu eta Aldaia askatu lemak.

Bakea dagoen Euskadi bat nahi dut, librea dena, soberanoa eta hori lortzeko denon ahalegina behar da. Helburua berdina bada, zergatik ez da uzten eta errespetatzen bakoitzak bere bidea aukera dezan?.

Felis Beltran de Heredia

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-konseilua:** Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantza Abasolo, Xabin Arriola. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Loramendi E., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.


Aretxagazeta



Aratusteak gainean dira

Badatoz aratusteak! goitik behera mozorrotzeko jai. Dagoeneko mozorroa prestatzen edo prestatuta egongo da ezta? Bateon batzuk egongo dira azkenengo momenturako utziko dutenak ere.

Kontuak kontu, otsailaren 17an Laja trikitilariekin hasiera emango zaie aurtengo aratusteei. Ondoren, 7,15etan, ARATZ, Aretxabaletako atzeratuen aldeko elkarteak antolatuta Xabier Lazpiurri omenaldia egingo diote Euskadi txirindulari taldeko partaideek. Honetarako pregoia botako dute herriko plazan.



Xabier Lazpiurri txirindularitza utzi duelako omenaldia egingo diote Euskadiko txirindulari elkartekok

Otsailaren 18an, domekan, ospatzen da Aretxabaletan jairik haundiena. Goizeko 10etan herriko txistulariekin diana izango da. Eguerdian 12etan, Gazteleku txarangak alaituko ditu herriko kaleak. Jarraian usadio zaharrari



Domekan egiten den mozorro lehiaketan epaimahaiaik parte hartzaileek sortzen duten giroa kontutan hartuko du

jarraituz, Loramendi dantza taldearen eskutik "Txino dantza" dantzatuko da Durana kalean.

Arratsaldean, 5etan ekingo dio Gazteleku txarangak kalejirari. Arratsaldeko 7retan aurtengo Santa Ageda mutilek aurrezkua eta banakoa dantzatuko dute Herriko Plazan. Ondoren aurtengo mozorro lehiaketaren sari banaketa egingo da. Arratsaldeari Gazteleku txarangarekin emango zaio amaiera.

Gauean, 10,30etatik 12ak artean ere, Gazteleku txaranga izango da gure artean.

Otsailaren 20an, martizenean,

arratsaldeko 3retan Incansables txarangak alaituko ditu herriko kaleak. Arratsaldeko 5,30etan japoniar bonbak jaurtiko dira plazan eta jarraian buruhaundiak egingo dira.

Aratusteei bukaera txinoaren hiletaz emango zaio. Mitarte kaltetik plazaraino joango da komitiba eta txarangaren laguntzarekin, bertan erretzeko. Txinoaren hiletara, lutoz jantzita eta kandelaz joatea eskatzen da.

Txinoaren hileta bukatu bezain laster berriz ere Incansables txarangak alaituko ditu kaleak.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Artano Taberna

Herriko Plaza
ARETXABALETA



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

SANTAGEDAREN BIZITZA

*Zorion etxe hontako denoi
oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharrak
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz
ezta ere oinetakoz
baina eztarriz sano gabiltza
ta kanta nahi degu gogoz.*

*Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.
Santa maite gaur hartu dugu
gure bideko laguna;
haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna.*

*Siziliako ugarte ederrak
emana digu lorea:
han jaio baitzen gure Ageda,
zorioneko gaztea.
Txikitatikan gogoz hartu zun
Jesukristoren legea
maitasun honek ekarri zion
bihotzeko poz betea.*



Santa Ageda mutilak, aurten 77. urtean jaiotakoak. Baserriak domekan eta kaleak astelehenean kantuz alaitu zituzten. Betiko moduan, eztarria ondo berotuta eta nahikoa nekatuta bukatu zuten, baserriz-baserriko eta kalez-kaleko bueltaren ondoren; soinua, panderojoleen doinua eta etxafleruen zarata beti ere ondoan zutela. Eguraldia ez zuten lagun izan aurtengo

Santa Ageda mutilek. Domeka triste eta euritsu azaldu zen. Hala ta be, tradizioak agintzen duen eran dotore jantzita zeuden. Santa Ageda egunez barrez, egun polita altxa bazen ere, arratsaldeko dantza saiorako euria ari zuen. Plaza ez zegoen dantzarako oso egoki baina polito dantzan egin zuten Santa Ageda mutilek. Aber ba, hurrengorako eguraldi hobea izaten duten.

1.993-2-5

**GAUR GOIZEAN BEGIAK ZABALTZEAN
LEIHORA HURBILDU ETA
EGUZKIAK BARRE EGIN DIT,
TXORIEK MENDIA
KANTUZ ALAITU DUTE ETA
SANTA AGEDA MUTILEK
INGURUKO BASERRIAK.
MOMENTU BATEZ
BEGIAK ITZALI DITUT ETA
ZUTAZ GOGORATZEAN
BIHOTZA ESTUTU ETA
BEGIAK UR BIHURTU ZAIZKIT.**

I.A.A.



Sailuente lagunez bete zen San Blas egunean

Joan den zapatuan ospatu zen San Blas eguna. Inguruko herrietatik lagun asko hurbildu zen Sailuentera meza entzun eta janariak bedeinkatzeko asmoaz. Meza goizeko 11etan egin zen eta ermitara igo ziren gehienek janari desberdinak bedeinkatu zituzten ondoren.


Udaletxeak 4 langile kontratatu gura ditu errolda lanak egiteko

Udaletxeak errolda berritzeko lanak aurrera eraman gura ditu. Hori dela eta, lau langile kontratatuko dira. Kontratua bi hilabetetarako izango da, gehiago luzatzeko aukera barik. Eskatzen diren baldintzak, atxabaltarra izatea, COU edo FP2 egina izatea eta euskera jakitea da.

Curriculum-a udaletxean aurkeztu beharko da otsailaren 15a baino lehen. Aurkezten direnei azterketa bat egingo zaie.

Aretxagazetako batzar orokorra

Urtero moduan aurten ere Aretxagazetako batzar orokorra egingo da. Batzarrean, 1995eko balantzea, aurrekontuak, memoria, 1996rako asmoak eta batzorde berrizketaren inguruko berri jakitera emango da. Otsailaren 16an udaletxeko pleno aretoan izango da arratsaldeko 7,30etan eta herritar guztiontzat gonbidapena luzatzen da.



Arlutz-Ezcutuko porrak izan zuen irabazlerik azkenean. Joan den urtarrilaren 28an **Raul Vicentek** eraman zituen porran pilotuta zeuden 786.400 pezetak. Horra hor argazkian txeketa eskuetan duela. Holakoetan zortea behar izaten da. Raulek lehenengo aldiz jokatu zuen eta apostu bakarra irabazi gainera. Orain dirua zertan gastatu pentsatu beharko du, baina bidaiaren bat egiteko asmoa ere badu. Esan digunaren arabera, Athletika ere gehiago gustatzen zaio orain.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

260 hektarea erre ziren orain 2 aste izandako sutean

2.600.000 m², hau da 260 hektarea erre ziren orain dela 2 aste Zubillaga eta Aretxabaleta arteko basoetan izandako sutean. Kalte haundiak eragin zituen suak, Galarria, Kortaburu, Gorordo eta Ursabalgo baso sail haundiak erre ziren eta.

Baso hoietan insignis motako pinu gaztea (10 urtetik beherakoa) landatuta zegoen gehienbat eta hauek erre ondoren ez dute saltzeko balio.

Tragedia baso jabeentzat

Tragedia handia bertako baso

jabeentzat. Izan ere, orain dela 6 urte beste sute bat egon zen inguru horietan eta orduan ere basoetako begetazio guztia erre zen. Orduetik hona makina bat lan egingo zuten baso jabeek, pinua berriz ere landatu eta basoa garbitzen; pinuak, gaztea denean ematen du lan gehien eta.

Eta lan handi hori egin ostean, berriz ere beste sute bat eta egindako guztia pikutara.

Baina naturan horrelako tragediak askotan gertatzen dira, batzutan batzuen kalterako eta bestetan beste batzuentzako.

Barianteko bide bazterrak garbituko ditu Foru Aldundiak
Gipuzkoako Foru Aldundiak Aretxabaletako bariante bazterrean dauden bere jabegoko partzelen garbiketa egingo du. Lur sail horiek jabego publikoa dute eta horregatik bertan ortua dutenak aldegin beharrean izango dira. Garbiketa lanak laster hasiko direla uste da eta bukatu ostean berdeguneak jarriko dira leku hoietan.

AIRTEL enpresak antena lekuz aldatuko du

Urriari, AIRTEL, telefono mobilaren erabilerarako enpresak, 30 metro inguruko antena jarri zuen Apotzaetxebarri auzoan. Udaletxearen baimen barik jarri zuten antena eta ingurugiroan sortzen zuen begi inpaktua ere handia zela kontutan izanik udaletxeak antena handik kentzeko agindu zien. Hori dela eta, 280.000 pezeta-tako izuna ordaindu beharko du AIRTEL enpresak.

Orain, udaletxearen baimenaz Apotzaetxebarri auzoan baina lehengo lekutik 300 bat metrotara jarriko dute antena.


Aldagelak eta gradak abuzturako gertu egongo direla uste da

Ibarra futbol zelaiko aldagela eta graden obrak aurrera eraman behar zituen enpresa ez dela aurkeztu eta, kontratua balio barik gelditu da. Hori dela eta, udaletxeak beste hiru enpresei eskainiko die aukera. Obrak martxoan hasiko direla uste da eta hau horrela izanik abuzturako bukatuta egon beharko lirateke; UDAko 50. urteurrerrena ospatzeko gertu.



Topografoak hiriguneko gaur egungo egoera aztertzen

Urtarrilaren hasieratik topografoak Aretxabaletako hiriguneak gaur egun duen egoera aztertzen ari dira. Azterketan, tresna batzuen bitartez, etxebizitzetako portalen egoera, eraikuntzen lerroakadura, kaleen egoera, e.a. jasotzen da. Hirigune guztiaren azterketa egin ondoren, planoetan eta disketeetan baturik egongo da Aretxabaletako hirigunearen gaur egungo egoera.



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia
ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

Batzokia inauguratuko da domekan

Datorren domekan otsailaren 11n batzokia inaguratuko da. Inaugurazio eta bedeinkapen ekitaldia goizeko 11,30etan izango da. 12etan Zاراia zineman ekitaldi politikoa egingo da. Eguerdiko ordu batetan luntxa izango da batzokian eta ondoren Taberna Berri jatetxean bazkaria.

Kinto afaria

1950. urtean jaiotako kintoak eta 1951. urteko urtarrila eta otsaila bitartean jaiotakoek urteroko afaria egingo dute otsailaren 24an. Afaria Taberna Berri jatetxean izango da eta joan gura izan ezker, izena taberna horretan eman beharko da otsailaren 22a baino lehen, aurrez 1.000 pezeta jarriaz.

Pausoka haur eskolan izena emateko epea zabalik

Pausoka haur-eskolak 1996- 97 ikas-turterako izena emateko epea zabalik du. Otsailaren 5ean zabaldu zen eta otsailaren 19ra bitartekoa izango da. Izena eman gura duzuenok arratsaldeko 6retatik 7rak bitartean egin dezakezue Otalora kaleko 27 bajuan.

Kurtzebarri eskolan eta Santa Rita ikastetxean ere zabalik da aurrematrikulazio epea

Kurtzebarri eskolak otsailaren 2an zabaldu zuen aurrematrikulazio epea eta otsailaren 22an bukatuko da apuntatzeko epea. Apuntatu gura izan ezker jo bertara 4,30etatik 6,30etara bitartean.

Santa Rita ikastetxean ere, 2 eta 3 urtekoendako otsailaren 2an zabaldu zen aurrematrikulazio epea, hilaren 22rarte zabalik egongo da. Apuntatzeko bertara jo behar da.

Murrukixorekin eski urteera

Murrukixo M. E.ak Gavarnie eta Luz Ardidenera eski urteera antolatu du datozen otsailaren 10 eta 11rako. Zapatuan goizeko 4,30etan izango da urteera partenoitik eta itzulera barrez, domeka gauean. Bazkideek 8.500 pezeta eta bazkide ez direnek 9.000 pezeta ordaindu beharko dute, segurua 500 pezeta da. Izena emateko Murrukixoko lokalean 6,30etatik 8retara bitartean egin dezakezue.



BEIRALAN

KRISTALDEGIA
 Loramendi 10 ☎ 79 81 78
 Aretxabaleta

DOIKALSE
 Elektroerosio
 lanak
 Basabe Poligonoa C-1-1
 Aretxabaleta
 Tfno: 79 82 44

Mobiliario ARENAZA
 ALTZARIAK
 DISEINUA
 APAINKETA
 Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

Dorleta Taberna
 Loramendi, 8
 Tfnoa: 79 94 15
 Aretxabaleta

ANGELINES

Autozerbitzua
 Mitarte, 16 ☎ 79 61 42

KIXKOR TABERNA
 Mitarte 13 ☎ 79 20 60
 Aretxabaleta

BITXITEGIA
MIREN & ZURIÑE
 BITXIEN DISEINUA
 BITXIEN-KONPONKETA
 Otalora kalea
 Eliza aurrealdean
 Tfnoa: 77 13 57

TXIMAK
 ileapaindegi mistoa
 ●●●●●●●●
 Herriko Plaza, 5 - behea
 Tfnoa: 79 83 64
 ARETXABALETA

MIKELOS
 Moda
 Guztia Zuretzat
 Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
 ARETXABALETA



Landaretza potentzialaren egoera eta deskribapena

Artikulu honetan aipatuko ditudan basoak ez dira gaur egun ARETXABALETAN ikus ditzakegunak, baizik eta gizonak eraginik izan ez balu (pinudiak, artzantzarako belardiak...) gure mendiak estaliko lituzketenak.

PAGADI KALTZIKOLA ETA EUTROFIKOA:

600 m-tik gora kokatzen den baso honek ez du hariztiak bezalako giza-presio haundirik jasan eta ondorioz egoki samar mantendu da. Kurtzebarriko magal garaietan du bere erreinua, baina Hiruhaitz eta Orkatzategi gainean pagadiaren bertsio azidofiloaren aztarnarik ere bada. **Pagoak** (*Fagus sylvatica*) monopolizatzen du bertako zuhaitzen estratua. Inguru hauetan ia desagertzeaz dagoen **haginik** (*Taxus baccata*) ere ba ei dago.



Pagoa



Aretxa



Haltza



Urretxa

HARIZTI BASO-MIXTO ATLANTIKOA:

600 m-tik beherako lur guztiak kolonizatu lituzkeen basoa bada ere (hortik Aretxabaleta izena), gaur egun oso endekatua eta erabat murriztua azaltzen zaigu. Pagadiak ez bezala, hariztiak zuhaitz dibertsitate handia erakusten du; sarri azaldu ohi dira, **Aretxak** (*Quercus robur*), **Gaztainondoak** (*Castanea sativa*), **Lizarrak** (*Faxinus excelsior*), **Urretxak** (*Corylus*

avellana), **Astigarrak** (*Acer campestre*), **Elorriak** (*Crataegus monogyna*), **Gorostiak** (*Ilex aquifolium*),...

HALTZALDI KANTAURIARRA:


Kantauriar isurialdeko ibai eta erreka guztietan agertzen da. Dena dela gizakiaren presio nabaria jasan du ibaiak kanalitza-tzean edota ibaien alboetako garbiketaketan (duela gutxi Errotabari eta Portasolen artean egin den bezala), eta gaur egun Deba ibaiak gure herrian duen ibilbidean ia desagerturik dagoela esan dezakegu, zenbait tramo puntaletan eta Urkulu inguruko erreketan mantentzen bada ere. Hau ere oso dibertsoa da: **Haltza** (*Alnus glutinosa*), **Sahatsa** (*Salix sp.*), **Lizarra** (*Fraxinus excelsior*), **Intsusa** (*Sambucus nigra*), **Zuhandorra** (*Cornus sanguinea*), **Urretxa** (*Corylus avellana*), **Akazia** (*Robinia pseudoacacia*),...

TXILARDI-OTADI-IRATZEDI ATLANTIKOA:

Komunitate hauek pagadiaren goiko mugaz haraindi kokatzen dira. Lurzoru hauetan zuhaitzik garatzea posible ez denez, zuhaixketara mugatzen zaizkigu. Lur pobreenetan **Txilarra** (*Callun vulgaris*, *Erica cinerea*, *Erica vagans*, *Daboecia cantabrica*) dugu nagusi. Txilarrak lurzorua aberastu orduko, aurrena **Otea** (*Ulex gallii*) eta ondoren **Iratzea** (*Pteridium aquilinum*) gailenduko zaizkio.

ZINGIRETAKO IHIDIA:

Urkuluko urtegia eraikitzearen ondorioz, artean ezezaguna zen komunitate berria azaldu da gure herrian: Zingiretako ihidia, non *Juncus implexus* **ihia** nagusi den.

 Mikel Arroiabe

Maritxu

Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABAleta

T
X
I
L
A
R
R
A



ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15


Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABAleta



Berrikuntzak

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparagirre, 4 Tfnoa.79 21 24



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

Badira 12 urte Aretxabaletako industrialdea sortu zena. Euskal Herrian sortu den lehenetarikoa da gure herrikoa; ordutik beste 28 eraiki dira Euskal Herrian.

74 enpresari lekua eman die industrialde honek.

Ez da ez, zifra makala. Izan ere, enpresen sorkuntzan aspektu garrantzitsua da lokalarena, Euskal Herrian hain garesti dagoen lurra.

Karmelo Azkoitia badu zer esanik gai honen inguruan, bera izan da hasiera batetatik Aretxabaletako industrialdeko gerentea eta 12 urte hauetan promotore lanak egin dituena. Karmelok oso balorazio baikorra egiten du industrialdearen inguruan, dagoeneko ia % 100 okupatuta dago eta enpresa batzuk oso maila haundia erakutsi dute.



Karmelo Azkoitia Aretxabaletako eta Oñatiko industrialdeetako gerentea

KARMELO AZKOITIA: “Gaur egun 74 enpresa daude industrialdean eta honek guztira 700 lanpostu sortu ditu”

• Orain dela 12 urte sortu zen Aretxabaletako industrialdea. Nola gogoratzen dituzu hasierako urteak?

Hasierako urteak nahiko gogorak izan ziren. Baina ordutik 12 urte pasatu direnean hasierako zailtasunak ahaztu egiten dira. Industrialdea sortzearen ideia Deba Garaiko mankomunitatean sortu zen eta hemendik Eusko Jaurlaritzari ideiare berri eman zitzaion. Azken honek Europan horrelako ekimenek nola funtzionatzen zuten ikerketa bat egin zuen eta horrela hasi ginen. Oñatin eta Aretxabaletan egin zen lehen esperimntua. Hasieran konpainia txiki bat jarri genuen eta poliki-poliki aurrera egin dugu.

• Zenbatekoa izan da industrialdean egin den inbertsioa eta zeintzuk izan dira kapital soziala jarri dutenak?

Industrialdean egin den inbertsio

historikoa 1.500 milioi pezetakoa izan da. Hoietatik, Eusko Jaurlaritzako Spri-Lurrek %51a jarri du. Aretxabaletako udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bakoitzak %24,45a jarri dute eta bukatzeko Mankomunitateak % 0,1 jarri du. Gaur eguneko kapital soziala 450 milioitakoa da. Aretxabaletako udalak konkretuki, 12 urte hauetan 110 milioitako kapitala jarri du.

• Kapitala lortutakoan zeintzuk izan ziren eman beharreko pausak?

Hasiera baten lur saila erosi beharra dago. Gero urbanizazioa egiten da, pabiloiak eraikitzen dira. Azken hauek betetzen joan ahala barriak eraikitzen joan gara. Lokalak alokatu egiten dira, baina alokairu berezi baten bidez, alokairu finantzieroa esaten zaiona.

• Zertan datza alokairu mota

horrek?

Industrialdean lokal bat hartzen duen enpresak, lokala errenta bidez ordaintzen du 9 urtetan zehar, urte bakoitzean %10a ordainduz. Horrela, 9 urteak pasatzen direnean lokala norberarena izango da. Azken finean lokalaren prezioa hileroko errenta ordainduaz poliki-poliki bereganatu egiten da. Hasiera baten ordaindu beharreko kantitatea txikiagoa izango da eta poliki-poliki igoaz joango da. Honek badu bere logika. Enpresa bat sortzerakoan gastuak haundiak izaten dira, horregatik ordaindu beharreko erren-

“Lokalaren prezioa errenta bidez poliki-poliki ordaintzen da”

ta txikiagoa izango da hasieran. Gero gehituz joango da, horrela enpresa bideragarria den ala ez ikusi daiteke.

• Eta industrialdean dauden enpresetatik zenbat dira dagoeneko lokalaren jabe?


Dagoeneko 25 enpresek, errenta ordaindu beharreko 9 urteak pasatu dituzte eta lokalaren jabe dira. Beste 49 enpresak barrez, alokairu finantzieroaren barruan dihardute.

• Momentu honetan zenbat enpresa daude Aretxabaletako industrialdean?

74 enpresa daude eta aurten beste lau edo bost ofizina beteko dira. Hoietatik 34 bat enpresa berriak dira, 21 haunditu egin dira, 3 txikitu, 4 beste leku batera aldatu ditugu, eta 8 desagertu egin dira. Enpresa guzti hauetatik 700 bat lanpostu sortu dira. Honez gain, 60 bat enpresa kanpoan gelditu dira. Momentu honetan tailer bat bera ere ez dago libre eta libre dauden ofizinak aurten beteko dira.

• Enpresa asko aukera barik gelditu da orduan. Zein kriterio jarraitu dituzue lokalak saltzerako orduan?

Eskaria haundia izan da eta denendako lekurik ez zegoenez



27 mila m² ditu Aretxabaletako industrialdeak

kriterio batzuren bidez egokienak erizten genituen enpresei eman diegu industrialdean sartzeko aukera. Diputazioak kriterio nahiko gogorrak jarri zituen hasiera baten, zeini saldu lokalak eta zergaitik. Garantia gehien ematen duenari saldu zaio lokala. Estabilitatea duenari, lanpostuak sortuko dituenari eta seriotasun baten barruan ibiliko denari.

• Ze motatako enpresak dira?

Denetariakoak daude, eta ez dakit bi enpresa berdinak ete dauden.

“Mota guztietako enpresak daude”


Enpresa konplementario asko daude, ez da komeni elkarren arteko kompetentziarik egoterik eta. Negozio desberdinak estabilitatea ematen dio herriari. Oso zaila bait da enpresa guztiak txarto joatea. Horregatik, antzerakoak badira ere, elkarri lagunduko dioten negozioak jartzen ahalegindu gara. Mota guztietako enpresak daude, tailer desberdinetatik hasi eta, arlo desberdinetako ingieneritzak: diseinu industrial, produktu, montajeenak esaterako, asesoriak, maketazio enpresak, inprimategiak, enpresa informatikoak, e.a.

• Balorazio baikorra egiten duzu hortaz industrialdearen inguruan. Aurrera begira badago beste antzeko proiekturik?

Bai, badaude antzeko beste proiektu batzuk baina oraindik aguro da ezer konkreturik esateko. Nire ustetan orain arteko kriterioak nahiko gogorrak izan dira. Aurreantzean beste industrialde bat egiten bada, kriterioak bigundu egin beharko lirateke. Pabiloi batzuk beste batzuk baino merkeagoak egin, horrela bestelako enpresa motek ere sartzeko aukera izan dezaten.



Industrialdean dagoen Diara enpresa, Hong Kong-eko aeroportuko metroa diseinatzen ari da (eskala 1:1)



Mushing eta musherra

Azkenaldi honetan txakurrekiko eta mendiarekiko zaletasunak bultzatuta edo eta kirol barriak probatzeko gogoak eraginda, gero eta gehiago dira mushing-a praktikatzen dutenak. Ez da oso kirol ezaguna, oraindik ere gure artean kirol barria da eta.

Mushing da kirolaren jatorrizko izena, musher barrez, kirola egiten dutenei esaten zaie.

Mende honen hasieran hasi ziren Kanada eta Alaskako lautada elurtuetan lehenengo lasterketak egiten, lehenagotik ere bertakoek garraio bide ohikotzat bazuten ere. European orain dela hamabosten bat urte egin zen ezaguna.

Gure artean, kirola barria dela esan daiteke. Gaur egun praktikatzen dutenak dira aintzindariak. Kirola edurretan egitekoa da baina inguruetan edurra aurkitzea zaila denez, kirol zaleek jatorrizko kirola zertxobait aldatu dute, eta beste modalitate batzuk sortu dituzte; leku elurtuen ordez, pista lauetan ere ibiltzen dira.

Txakur ipartarrak izan ei dira, lera, triziklo, bizikleta, e.a. gainean dagoen musherrarengandik tiratzen dutenak. Lau arrazakoak dira Espainian aritzen direnak: Husky siberiarra, Alaskako malamutea,

Pasatu den zapatuan, Murruxio M.E.ak antolatuta txakur lerak izan genituen herrian. Gaztetxoek lera txirrinkadunetan buelta bat emateko aukera izan zuten bitartean, batek baino gehiagok liluraturik begiratzen zien txakur hauen edertasunari. Une egokia izan zen kirol barri honen inguruko xehetasunak jakiteko.



samayedoa eta groenlandiarra.

Huskyak txakur arinak eta bizkorrak dira. Malamuteak indartsuago eta haundiagoak dira, baina baita motelagoak ere. Samoyedoak dira ikusgarrienak, ile zuri-zuria eta begi urdinak dauzkate. Groenlandiarrak barrez, oso gutxi dira gure artean.

Txakur hauek tira egiteko daukaten joera aipagarria da, gainera basati samarrak ere badira. Txakur hauek hezitzea ez da batere erraza, pasientzia haundiz eta poliki-poliki egin beharreko lana izaten da. Entrenamendu eta lasterketa garaietan pentsu ugari eta ona eman behar izaten zaie.

Kirol mota honetako lasterketei dagokienez, Gipuzkoan egiten den lasterketa bakarra Bergarako Gorlan egin ei da; dagoeneko bi bider egin da. Distantzia luzeetakoan Pirineoetan egiten den "Pirena" da ezagunena. Hamabost egun irauten ditu Pirenak eta Formigalen hasi

eta Pirineo mendikatea ia osoa zeharkatzen du. Esan beharra dago gero eta euskaldun gehiagok praktikatzen duela kirol hau eta gainera nahiko maila ona erakusten ari dira lasterketetan.

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABALETA

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

JOLAS
LEKU

Mitarte, 10
Aretxabaleta

BASABE

Jatetxea

- Bazkariak
- Menuak
- Karta merkeak

Basabe Bidea z/g ☎ 79 91 84
ARETXABALETA

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941
ARETXABALETA

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

JOSU
HARATEGIA


Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

Athletika ala Erreala?

Batzuk esango dute, orain ere futbola. Egia da. Baina futbolariek zeresan haundia ematen du gure inguruan, astebukaeretan jendearen ahotan ibiltzen den gaia da, zer egin du talde honek eta nola doa beste hau?

Herrian talde askotako zaletuak daude baina lehendabizi normala den moduan Erreal zaleak dira gehientsuenak. Hala ta be, Athletik zaleak ere uste baino gehiago dira. Gaurko honetan herrian dauden Athletik eta Erreal zale batekin egon gara eta euren eritzia jakin gura izan dugu.



Felix Madinabeitia

Athletik zalea

- **Aretxabaletan Athletik zale asko dagoela uste duzu?**
Gipuzkoan bizi garela kontutan izanik nik uste dut Athletik zale asko dagoela.
- **Zelan ikusten duzu Athletika aurtengo denboraldian?**
Hasiara batean hobeto ibili zen, orain ez dabil hain ondo baina hau normala da futboleant.
- **Athletikek ala Errealak bukatuko du hobeto ligako klasifikazioan?**
Athletikek erdi inguruan bukatuko duela uste dut baina batak besteari ez dio puntu bat baino gehiago aterako.
- **Ze aldatuko zenuke Athletikeko presidente bazina?**
Lezamako teknikoak aldatuko nituzke, erdiak sobran daude eta. Ahal balitz entrenatzailea bertakoa jarriko nuke, euskeraz dakiena.
- **Eta entrenatzaile bazina?**
Plahtila finkoagoa mantentzen saiatuko nintzateke, horrenbeste aldatuta egin gabe.
- **Partidoetara joaten zara?**
Lehen gehiagotan joaten nintzen, orain gutxiago, telebistatik ere partiduak ikusi daitezke eta.
- **Zein duzu Athletikeko jokalaririk gustokoena?**
Etxebarria eta Guerrero aurrean eta atzean Karanka.
- **Eta Errealaren inguruan zer duzu esateko?**
Erreala ere gustatzen zait baina lehengo Athletika.

“Nik futbolarako afizioa hartu nuenean, lehengo mailan Athletik-a bakarrik zegoen, eta Erreala baino askoz ere talde entzunagoa zen. Horregatik orain ere Athletik zalea naiz”



Salva Rodriguez

Erreal zale amorratua

- **Zelan ikusten duzu Erreal aurtengo ligan?**
Hasiara baten txarto hasi bazen ere, bigarren bueltan oso ondo dabil, puntu gehien lortu dituen bigarren taldea da.
- **Zeinek bukatuko du hobeto ligako klasifikazioan Athletikek ala Errealak?**
Errealak Athletikek baino hobeto bukatuko duela uste dut, 6. edo 7. postuan, UEFarako klasifikatzeko aukeraz.
- **Ze aldatuko zenuke Errealeko presidente bazina?**
Errealak kanpotar larregi dituela uste dut. Purk eta Yaw bota egingo nituzke.
- **Eta entrenatzaile bazina?**
Kanterako futbolariei jokatzeko aukera emango nieke.
- **Partidoetara joaten zara?**
Bai, Errealeko sozioa naiz eta partidu guztietara joaten naiz, txapela, bufanda eta kamiseta aldean ditudala. Kanpoan jokatzen diren partiduetara ez naiz joaten. Behin joan nintzen Madrilerako kopako partidua ikustera eta Errealak galdu egin zuen.
- **Zein duzu Errealeko jokalaririk gustokoena?**
De Pedro eta Aranzabal.
- **Eta Athletikaren jolastean duenean, orduan zer?**
Ni Athletikaren aurkakoa naiz, gurago dut beste edozein taldek irabaztea Athletikak baino.



Bakardadeari beldurra



Jesenia Nuñez
(14 urte)

Eskumaldean duzuen poesia hori, Jesenia Nuñezek idatzitakoa da. Bakardadeak ematen dion beldurraren inguruan idatzi zuen Jesenhiak. Benetan poesia polita. Loramendi literatur lehiaketan aurkeztu zuen poesia eta baita B ereduan lehenengo saria eskuratu ere. Sariak banatu ziren egunean ez zuen erregaluri jasotzerik izan, ebakuntza txiki bat zela eta zentruan zegoelako. Dagoeneko onik da barriro ere etxean.

Zorionak gure partetik.

*Beldurra bakardadeari:
Bakardadea egunez eta gauean,
Bakardadea baso zabalean,
Bakardadean nere arimarekin:
Beldurra daukat hastapen bat ote
nere lagun min bakarra?*

*Beldurra urteak pasata gero
eta bakarrik gelditzean isiltasuna,
Beldurra bakardadearen oinazeari
neguko gau luzeetan.
Ai! Nork entzungo ditu nire hitzak
nostalgia eta oroitzapenak?*

*Nork luzatuko dit eskua
nere pauso zalantzatsuetan?
zeinek une baten
kotsolatuko du nire mina?*

*Zein izango da goiz batean
penaz ikusten nautenean
nirekin etorri
eta errezuren bat itzuliko didana
nik eginiko asko bezalakoak?*

*Nere bizitza itzaltzen denean
nire arima egarritsuarekin
zeinek eskainiko dit otoitz bat?
Zeinek eramango dit loreren bat?
Beldurra diot bakardadeari.*

Jesenia Nuñez



AITZIBER
Umeak

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

Marti

Bere bezeroen zerbitzuan
Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA



Zenbaki

Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

INDUSTRIALDEA
MEDIKU-ZENTROA

Luis Orruño
Medikua
Zaraiña
Masaiak eta osteopatia


Industrialdea
Pabelloi F-O b
79 06 82
ARETXABALETA



Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



Badirudi ohiturak mantendu egin direla garai bateko eta gaur eguneko Santa Ageda mutilen artean. Usadioak berdintsu jarraitzen du. Santa Ageda bezperan, baserriz-baserri kantatzen da. Txorizo/arraultze/gazta eta dirua batuz eta ondoren jasotakoarekin afaria ederra egiten da.

Santa Ageda eguna, otsailaren 5ean, barrero ere kantuan urte-zeko eguna. Herriaren aurrean kantatzen da, kalez-kale eta hemen dirua izaten da gehienbat batzen dena.

Arratsaldean, dantzarako ordua iristen da. Plazaraino kalejiran jeisten dira Santa Ageda mutilak dantzarako gertu. Banakoa, nesken aurrean desafioa eta arin-arin eta fandangoa bukatzeko.

Eta Santa Ageda egunez hasi eta domekero domekero dantzatuko dute aratusteetako domekararte.

Baina guzuzak aldatu egin



direla? Jakina. Denbora pasatzen den heinean ingurukoa ere aldatu egiten da. Argazkiko Santa Ageda mutilen garaian esaterako, kaletarrak eta baserritarak banaturik ibiltzen ziren kantuan. Kaletarrak zuriz jantzirik, baserritarak baserritarrez.

Argazkikoak 42. urtean jaiotako kintoak dira, 62. urtean Santa Ageda mutil izandakoak. Garai haietan 20 urtekin izaten zen kinto, gaur egun barrez 18 urtekin.

Orduan Akilinoaren etxean afaltzen zen eta afalostean bertan egoten ziren Santa Ageda

mutilak ordu batak arte edo.

Goian ezkerretik hasita: **Demetrio Iriarte, Jose Joakin Jauregi, Remigio Gastañaga, Jesus Berasaluce, Pedro Mari Larrinaga, Bonifacio San Migel, emakumea, (Akilino tabernako zerbitzaria, gaur egun Ibarra taberna), Jose Antonio Zubizarreta.**

Behean ezkerretik hasita: **Jose Antonio Arenaza, Fernando Unanue Biguri (mutikoa) Pedro Urzelai (gaineko mutikoa ezezaguna), Alberto Arkauz, Roberto Aldalur, Ignacio Lopez de Uralde.**

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S. A.

“ARINSA”

Basabe Poligonoa “EO-10”
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABALETA (Gipuzkoa)

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Gauean pun, emakumeak nagusi



M.J. Aretxaga

Azken egun hauetan tiro hotsak entzun dira gauez. Ez dira goardia zibilak, ezta ehiztariak ere, gorriz joaten dira, txapel eta guzti baina ez dira ertzainak. Atxabaltako Santa Ageda mutilak dira. Urtero moduan aurten ere, iritsi dira eta eurena egin dute herrian, bai egunez eta batez ere gauez.

Santa Ageda mutilena gizonezkoen ohitura da, baina aurten dirudenez, hori aspergarri samarra dela eta soinu eta trikitalari guztiak emakumezkoak aukeratu dituzte, **Igone Zaloña, Iratzeder Iturri, Haizea Cobos, Ainara Etxenagusia** eta **Ainhoa Kortazar**, gizonezko talde triste hori benetan alaitzen dutenak. (Gu barik ezin dira bizi eta).

Aurten, plazan dantzan egin aurretik, intsumisoek antolatutako enkarteladan parte hartu zuten Santa Ageda mutilek. Bi atxabaltar, **Unai Altuna** eta **Joseba Lopez de Armentia** mar-

tizenean epaitu zituzten Donostian intsumiso izateagatik. Ea beste danek bide berdina hartzen duten.

Agian emakumeok gizonezkoen ohitura honetan sekula ezingo dugu parte hartu baina gizarteko beste hainbat arlotan gero eta nabarmenagoa da gure presentzia, horren erakusgarri da aurtengo kofradiako batzar zuzendaritza barria. Lehenengo aldiz emakume bat dago batzar honetan eta bera **Ana Rita Altuna** da, berarekin batera, **Iñaki Arana, Jesus Etxebarria, Martin Garai, Juan Luis Iturbe, Jose Antonio Unzalu, Luis Mari Zabalo** eta **Jose Zubizarretak** osatzen dute batzordea. Ziur nago emakume ikutua igarriko dala hemendik aurrera.

Emakume kontuekin jarraituz, joan den domekan izugarrizko derbia ikusteko aukera izan nuen Ibarra futbol zelaian, UDA eta Almeneko nesken artekoa hain zuzen ere. UDAkoak 2-0 nagusitu ziren. **Nerea Etxeandia** eta **Juli arrasatearra** izan ziren golak sartu zituztenak. Dana dala, Almenekoek asko hobetu dute eta laister izango dira errebantxa emateko moduan.

Ez ahaztu aratusteak gainean ditugula eta domeka horretan ondo pasatzeko mozorroto beharra dagoela. Badakituzue hortaz.

Nik mozorroa prestatuta daukat dagoeneko eta aber ba norbaitek ezagutzen nauen. Ezetz.

ARETXAZOKA

• Urtarrilaren 4an eskuz egindako larruzko poltsa bat desagertu zen. Aurkitu ezkerro deitu 79 05 26 telefonora. Eskerrik asko.

LANA

• Heziketa Berezia (Educación Especial) ikasi duen ikasleak lana egingo luke atzeratu edo heziketa arazoak dituzten haurrei laguntzen. Deitu, (943) 79 52 97 telefonora.

• Lurra lixatu, barnizatu, (barniz ekologikoarekin) eta parketa, tarima jartzen ditut. Eskatu aurrekontua konpromezu barik. Telefonoa: 71 50 72

• Arrasaten euskerazko eta gaztelaniazko itzultzailea behar da. Tfnoa: 77 04 98

• Emakume euskalduna eskaintzen da ordu batzuk lan egiteko. Tfnoa: 79 43 63

• Klase partikularrak emango nituzke, 2. REMerarte. Telefonoa: 79 27 14

• Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 77 14 31. Deitu arratsalde 8,30etatik 9,30etara.

ETXEBIZITZA

• Pisu bat salgai dago Eskoriatzan. Berritua eta jantzita dago. Gauez deitu ondorengo telefonora 71 40 47.

• Logela bat salgai dago. Erosi berria da. Bi ohe tolesgarri ditu, erropentzako bi armairu, eta espidodun apalategia. Armairuaren neurria, 3,46 metro zabaleran eta 2,4 metro altueran da. Harremantarako telefonoa: 79 57 07 da eta Pauligatik galdetu.


• 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kalerutza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

• Eskoriatzan jantzitako etxea alokatzen da. Telefonoa: 79 87 26.



Imanol Etxebarria

“Aretxabaletan okela asko eta ona jaten da”



Imanol Legazpian jaiotakoa bada ere, orain dela 3 urte etorri zen gure herrira. Harategia eta janaridenda jarri zuen hemen. Esperientzia haundiko dendaria dugu, harakin lanetan 26 urte eman ditu eta.

- **Zein haragi mota saltzen da gehien?**
Txahalaren okela da gehien saltzen dena.
- **Haragi asko jaten dugu atxabaltarrok?**
Bai, eta oso okela ona gainera.
- **Nondik ekartzen duzue okela?**
Bertako baserrietatik ekartzen dugu, Azatzatik, Eskoriatzatik, Apotzaetxebarritik, e.a.
- **Txorizoak nondik ekartzen dituzue?**
Bertan egiten ditugu.
- **Ze osagai behar dituzte txorizoek?**
Txarri okela eta urdaia, pipar txorizeroa, eta berakatza.
- **Oholoste eta mortzilak ere bertan egiten dituzue?**
Bai.
- **Zein osagai erabiltzen duzue?**
Oholosteek kipula, porrua, txerri koipea eta odola behar dute. Buzkantzek berdina baina ardiaren odola eta koipea.
- **Okela ona izateko zelakoa izan behar da?**
Okela ona grasa apur bat duena da eta kamaran denbora apur bat egonikoa izan behar da.
- **Zein urdaiazpiko mota izaten duzue?**
Jabugo eta Navidul eta gero paletila, merkeagoa dena.
- **Zein saltzen da gehiago?**
Hemen paletila gehiago saltzen da prezioagatik.
- **Jabugo urdaiazpikoak zein berezitasun ditu?**
Grasa apur bat izan behar du eta ondo kuratua egon. Txerri beltza izan behar du eta artearen ezkurra jandakoa. Grasa gehiago izaten du honek.
- **Zeren arabera egoten da urdaiazpikoaren prezioa?**
Gatzaren, kurazioaren arabera, e.a.
- **Egun berezietan, zer saltzen da gehien?**
Andramari inguruan, solomiloa. Gabonetan bildotsa eta txerrikumea ere bai.
- **Legazpi ala Aretxabaleta da politagoa?**
Nik Aretxabaleta esango nuke. Oso herri lasaia da eta asko gustatzen zait.
- **Zer du polita Aretxabaletak?**
Herri polita da, jendea ere oso jatorra da.
- **Astebukaerak hemen ala Legazpin pasatzen dituzu?**
Bietan.
- **Aratusteetan mozorrotzeko asmorik baduzu?**
Seguruasko bai, eta ahal bada bai domekan eta baita martizenean ere.



Beheko laukian, Aretxabaletan azpian dauden berbak zelan esaten diren aurkitu beharko duzu:

- 1.- AURKITU - T...
- 2.- PIZTU - I...
- 3.- ZAILAX - G...
- 4.- AZKAR - A...
- 5.- ERRAZ - S...
- 6.- NOLAKOA - Z...

B	Z	J	I	U	K	L	U	D	L	Z	J
T	U	E	S	I	G	N	U	X	E	O	U
I	X	O	T	U	E	R	A	L	Z	R	I
D	Z	Z	D	S	R	N	A	S	L	U	R
O	S	O	A	I	O	K	U	R	L	G	O
D	A	M	I	T	O	J	E	L	T	A	J
S	U	Z	L	A	O	U	M	O	D	S	Z
R	A	A	U	T	I	A	P	A	G	J	A
A	S	M	A	X	T	A	G	U	D	L	O
N	T	B	R	I	T	S	O	N	Z	B	K
O	A	D	L	U	A	R	D	K	R	O	R
U	S	I	U	E	U	A	P	U	M	R	U

Gurutzagrama

Bizkaino herria zokoratuak	Hizari-meria ipar. Zaildua	Lap. Inora Iriri Munduratu	Oinarritzkoa Infusio mota	VI hilak Lehen bokala
Zati lau Adin handiko				Argona Txuria
Elkartasun Ezeiza			(Err.) Haurren okela Hodeirik gabe	
Uztai Jauriti	Hiri nafarra Indiar liburu erotikoa		Salbu Udako turista	
Nafarroako autoetan	Maitasun Kontadurarako taula		(Inf.) Urkatu Ohe, hitz elkarrekin	Hiri nafarra Kontso-mantea Graduak
Basa Bahenka	Alho, hitz elkarrekin Ardiaren arra		Atrantza tresna Seadoa	Ez eme Ad!
Konulu nahasi Lanbidez hiltzaile			IX. Hilabete Musika nota	
Herri giputza			Aberoei edaten emateko ontzi handia	Kanpo Sufrea

BERGARA



Otsailak 13-25

ARGAZKI ERAKUSKETA

"Muga gaisetik" eta "komite Internazionalistak" antolatuta kultur etxean "3. munduarekin solidaritatea" argazki erakusketa.

Otsailak 17 zapatua

DANTZA TALDEAK

Xamatz dantza taldearekin kalejira eta Luzaideko dantzen agerpena arratsaldeko 7retan.

Otsailak 18 domeka

TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

Arratsaldeko 6retan TXIRRI, MIRRI eta TXIRIBITON pailasoen emanaldia udal pilotalekuan.

Otsailak 20 martizena

ANTZERKIA

Panta-Rehi antzerki taldearen eskutik "Anbotoko dama" antzezlan. San Martin plazan arratsaldeko 5etan.

OÑATI



Otsailak 10

BEDEREN BAT ANTZERKI TALDEA

Bederen bat antzerki taldeak ZU (t) GABE antzezlan antzeztuko du Santa Ana antzokian gaueko 10,30etan.

Otsailak 17 zapatua

DANTZARIAK

Oñatz dantza taldeak eta herritarrak parte hartuko dutelarik Luzaideko dantzak eskainiko dituzte kaleetan zehar arratsaldeko 5etan.

ARRASATE



Otsailak 10

BALLET EMANALDIA

Gaueko 10etan Amaia Antzokian Praga Ganbarako ballet emanaldia. Arrasate Musikalek antolatua.

Otsailak 12 astelehena

HITZALDIA

Arratsaldeko 7retan Monterron Kultur Etxean Langile Komisioak antolatutako "Migrazioen arrazoiak eta ondorioak"

Otsailak 15 eguena

HITZALDIA

Arratsaldeko 6,30etan Monterron Kultur Etxean Emakume Masektomizatuak antolatuta "Bular minbizia"ri buruzko hitzaldia.

Otsailak 17 zapatua

"SABADO REGULAR VII PLAY BACK JAIALDIA"

Arratsaldeko 7retan eta gaueko 10,30etan Amaia Antzokian "SABADO REGULAR VII PLAY BACK JAIALDIA".

Otsailak 20 martizena

ARATUSTEAK 96

Otsailak 24 zapatua

ANTZERKIA

Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian Orain antzerki taldearen "Besarka gaitezen Folleville" emanaldia. Sarrera: 800 pezeta. (Gazte txartelarekin: 600).

Otsailak 12tik-25ra

ERAKUSKETA

"Geure mundua. Proiektu solidarioa"ri buruzko erakusketa, langile komisioak antolatuta, Monterron kultur etxean.

Otsailaren 16tik ...

ERAKUSKETA

Otsailaren 16tik martxoaren 15era, "ARKITEKTURAK ARRASATEN" erakusketa izango da ikusgai Harresi Aretoan.

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gozategia
Panaderia - Pasteleria*

Aretxabaleta

Mitarta 1 - Tfn. 77 00 81

Aretxabaleta

Obrador Propio

**MENDIOLA
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA



ARATUSTEAK 96



BEHARREZKO
TELEFONOAK

Otsailak 10, 11

GAVARNIE ETA LUZ ARDIDENERA ESKI URTEERA

Murrukixo M. E.ak antolatuta datorren otsailaren 10 eta 11rako Luz Ardiden eta Gavarnie-ra eski urteera egongo da.

Otsailak 11 domeka

BATZOKIAREN INAUGURAZIOA

SANTA AGEDA MUTILAK

Arratsaldeko 7retan, banakoa eta desafioa dantzan egingo dute plazan.

LEHENENGO ERREGIONALA-BERGARA

Arratsaldeko 4,30etan Ibarra futbol zelaian.

Otsailak 16 eguakotxa

ARETXAGAZETAKO BATZAR OROKORRA

Arratsaldeko 7,30etan izango da Udaletxeko pleno aretoan.

Otsailak 17 zapatua

LAJA TRIKITILARIEKIN KALEJIRA

Arratsaldeko 6,30etan Laja trikitilariekin kalejira.

XABIER LAZPIURRI OMENALDIA

ARATZ, Aretxabaleako atzeratuena aldeko elkarrekin antolatuta, arratsaldeko 7,15etan Euskadi txirrindulari taldeko partaideek Xabier Lazpiurri txirrindularitza utzi duela eta omenaldia egingo diote herriko plazan.

Otsailak 17 zapatua

UDAKO NESKAK-ZUMAIAKO

Goizeko 10etan izango da Ibarra futbol zelaian.

UDA-ELGOIBAR

Ohorezko ligako jubenilak 12etan izango dute partidua Ibarra futbol zelaian elgoibartarren aurka.

UDA-OIARTZUN

UDAKo preferenteek arratsaldeko 4,30etan jokatu dute Ibarra futbol zelaian oiartzuarren kontra.

Otsailak 18 domeka

ARATUSTEAK

Egitarau berezia hamabostean behinen.

Otsailak 20 martizena

ARATUSTEAK

Egitarau berezia hamabostean behinen.

Otsailak 23 eguakotxa

BEDEREN BAT ANTZERKI TALDEA

BEDEREN BAT antzerki taldeak "Zu (t) gabe" antzezlan antzeztuko du Zaraia zinemaren gaueko 10,30etan.

Otsailak 24 zapatua

LORAMENDI ELKARTEAK MINTEGIA

Arratsaldeko 4retan ekinda Loramendi Elkartearen mintegia.

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltea 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 09 70
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otorala 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28

ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



APRESKI BOTAK

Bat 2.000 pta.
Bi 3.000 pta.

TXANDALAK

Bat 6.000 pta.
Bi 11.000 pta.



KAZADORAK

Bat 5.000 pta.
Bi 9.000 pta.



SUDADERAK

Bat 3.000 pta.
Bi 5.000 pta.



ESKIATZEKO PRAKAK

5.995 pta.

KAZADORA TEKNIKOAK

Bat 10.000 pta.
Bi 18.000 pta.

